

Etxebizitza duina guztiontzat!

¿Con quién han pactado el recorte del presupuesto?

Zergatik Etxebizitzaren aldeko beraien Itun Soziala?

Etxebizitza politika murriztaile bati bake sozialaren itxura emateko.

Irudia beste funtsik ez duen politika egiteko, kanpotik itxurosoa baina barnetik hutsa.

Gizartea oro har eta erakunde sozial nahiz sindikalak saihesteko, gizarteko eztabaida eta herritarren parte hartzearen orde denbora pasarako balio duten prozedurak erabiliz. Nortzuen artean hitzartu dute, bada, itun hau? Gehienera, prestaturiko bazkari baten postrera gonbidatzen gaituzte.

Zertan da etxebizitzaren arazoa?

Egoera oso larria da:

- 107.300 herritarrek ezin dute beren kontu etxe bat izan baliabide ekonomiko nahikorik ez dutelako (beren kontu bizi nahi dutenen %85ak). Bitartean, milaka eta milaka etxebizitza hutsik dago.

- Merkatu libreko etxebizitzaren batez besteko prezioa 325.200 euro da, eta batez besteko errenta, 922 euro.

- EAEko higiezinaren eskaintzatik %89,1 saltzeko da, eta %10,9 besterik ez alokairurako. Etxebizitza babestutik %69 jabegora bideratzen da, eta soilik %31 alokairura.

- EAEn etxebizitzak erosteko hipoteken batez besteko kopurua 147.231 euro da.

Azken urteotan egoerak okerrera egin du, bai politika publikoak pasibo izan direlako, edo eta egoera okerrera egiten lagungarri izan direlako.

Aurrekontu bidez Eusko Jaurlaritzak zein erantzun ematen dio horri?

2010erako aurrekontuetan etxebizitzarako 178 milioi euro bideratu dira, azken aurrekontuan baino %13 gutxiago eta kopururik txikiena 2006az gero. Norekin adostu du Jaurlaritzak gastua murrizteko erabaki hau?

Bitartean, gastu fiskalak medio 525 milioi euro gutxiago bilduko dute, Sozietateen Zergari dagokionez, eta Ondarearen gaineko Zerga kenduta urtero 181 milioi euro gutxiago jasoko dira.

Hain gutxi beharizan sozialetarako, eta horrenbeste kapitalari zein errenta altuei emateko!

Norekin adostu nahi du Jaurlaritzak?

Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuak argi esan du: Legean ez da etxebizitza izateko eskubidea aitortuko; eraikuntzako enpresa eta promotoreei botere handiagoa eman nahi die, eta udalek erabakitzeke ahalmen zabalagoa izatea nahi du.

Horrela, Jaurlaritzaren apustua espekulazioaren iraupena da, eta jendearen beharizanen gainetik jartzen ditu negozioa egiten dutenen interesak.

Itun gutxiago, eta ekintza gehiago.

Etxebizitza duina izateko eskubidea, orain!

Argilan, Berri Otxoak, Bilgune Feminista, Danok Lan, EGK, EHNE Bizkaia, ELA, Elkartzen, ESK, Grupo Pangea, HIRU, IDEASUR, LAB, Nuevo Euskadi, STEE-EILAS, Txiroekin bat eginik, Zirikatzen

Etxebizitza duina guztiontzat!

¿Con quién han pactado el recorte del presupuesto?

¿Por qué su Pacto Social por la vivienda?

Para dar imagen de paz social a una política restrictiva de vivienda.

Para hacer política de cartón piedra, aparente por fuera pero sin contenidos por dentro.

Para obviar a la sociedad en su conjunto y a las diferentes organizaciones sociales y sindicales, sustituyendo el debate y la participación social por procedimientos de entretenimiento. ¿Entre quienes han negociado el diseño de su Pacto por la Vivienda? Como mucho, nos invitan al postre de un plato precocinado.

¿Cuál es la situación del problema de la vivienda?

La situación de la vivienda es muy grave:

- 107.300 personas no pueden constituir un nuevo hogar independiente por falta de recursos económicos (el 85% de quienes quieren independizarse). Mientras, hay decenas de miles de viviendas vacías.

- El precio medio de la vivienda libre es de 325.200 euros, y la renta media de alquiler de 922 euros.

- El 89,1% de la oferta inmobiliaria de la CAPV es de venta, y tan sólo el 10,9% de alquiler. De la vivienda protegida, el 69% es destinada a propiedad, y tan sólo el 31% a alquiler

- La hipoteca constituida para viviendas en la CAPV es de 147.231 euros.

La situación en los últimos años no ha hecho más que empeorar, bien por la pasividad de las políticas públicas, bien por su colaboración.

¿Cuál es la respuesta presupuestaria del Gobierno Vasco?

La dotación presupuestaria de 2010 es de 178 millones de euros, un 13% menos que la dotación del presupuesto anterior y la más baja desde 2006. ¿Con quién ha acordado el Gobierno este recorte?

Mientras, dejan de recaudar 525 millones de euros en concepto de gastos fiscales sólo en el Impuesto sobre Sociedades, y la eliminación del Impuesto sobre el Patrimonio supone dejar de recaudar 181 millones de euros al año.

¿Tan poco para necesidades sociales, y tanto para el capital y las rentas altas!

¿Con quién quiere pactar el Gobierno Vasco?

El Consejero de Vivienda del Gobierno Vasco ha sido claro: renuncia a que en la Ley se recoja el derecho efectivo al acceso a una vivienda, pretende dar más poder a las empresas constructoras y promotoras, y considera que los municipios tienen que tener más capacidad de decisión.

De este modo el Gobierno opta por seguir permitiendo la especulación, primando los intereses de quienes hacen negocio sobre las necesidades de la gente.

Menos Pactos y más hechos.

Derecho a acceder a una vivienda digna, ¡ya!.

Argilan, Berri Otxoak, Bilgune Feminista, Danok Lan, EGK, EHNE Bizkaia, ELA, Elkartzen, ESK, Grupo Pangea, HIRU, IDEASUR, LAB, Nuevo Euskadi, STEE-EILAS, Txiroekin bat eginik, Zirikatzen